

# 1. BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun asper-asper eginda gauden une batzuetan ez dakigu zer egin. Gainera, beti daukagu interesa gure lagunekin elkarreragintzeko. Horretarako, VitalChallenge izeneko euskerazko aplikazio bat diseinatu dugu, egunero erronka bat egiteko eta zure lagunak zuk egindako erronkaren bideoa ikus ditzaten. Aplikazioa erabiliz gure bezeroek

VitalChallenge aplikazioan, erronka horiek ahalik eta denbora laburrenean eginez, puntu gehigarriak lortuko dituzte. Puntu horiekin liga moduko sailkapen batean pilotzen joango dira, eta erabiltzaile onenek sariak jasoko dituzte. Gero, top 25an geratzen direnentzako sariak lortuko dituzte. Sari horiek elkarlanean gauden marken produktuak izan daitezke, baita hainbat lekutara joateko bidai bat, adibidez, Karibea edo Europako iparraldea (Islandia, Suedia...)



## PUNTUAZIOA

Denbora (minutu)	Puntuak (Pts)	Denbora (minutu)	Puntuak (Pts)
<20	40	51-60	20
21-30	35	61-120	15
31-40	30	121-300	10
41-50	25	>301	5

**Erronka egiteko denbora gehiago behar izanez gero, puntuazioa aldatuko lirateke (denbora luzeagoa)**

Puntuak markagailu pertsonalera igo ahal izateko, bideo bat egon behar da, egun horretako erronka eginez. Bideo hori igota, erregistratu eta dagokion puntuazioa




emango da, eta, gainera, bideo hori zure lagunak ikusi ahal izango dute, eta haiek iruzkinak bidali ahal izango dizkizute edo argazki edo gehienez 5 segundoko mini-bideo batekin erreakzionatu ahal izango dizute. Haiek bezala, gure aplikazioan ere erreakzionatu ahal izango zaie pertsona agregatuei.


Aplikazioan bidaliko ziren erronkak aukeratu baino lehen, gure bezeroei galdetegi bat bidali genien. Galdetegian zeuden bi galdera garrantzitsuak aipatu nahi dutugu:

Gustatzen zaizkizue muturreko erronkak?

62 erantzun



Ordenatu 1-5 erronka mota hauek (1. gustokoena eta 5. gutxien gustatzen zaizuen).



Erantzun hauek ikusita, aukeratu dugu muturreko erronkak egitea baina bakarrik bi hilabetero gure bezeroen laurdena ez dutelako gogoko muturreko erronkak. Bestetik, gehien ipiniko ditugun erronkak kirola egitekoak dira, adibidez, jolastea 10 minutu saskibalo partidu bat lagunekin. Horrela, gure bezeroak aktibo mantentzen ditugu eta gainera, haien lagunekin kolaboratzen dute. Azkenik, gutxien egingo ditugun erronkak izango dira joko tipikoak, ginkana bat adibidez.

## PREMIUM

VitalChallengeko premiumak, 4,99 €-ko prezioa duenak, abantaila ugari ditu erabiltzaile arrunt bati dagokionez. Premiumarekin, agur esan diezaiekezu iragarki guztiei, aparteko puntuak ere lor ditzakezu (8 gehienez eta 1 gutxienez, erronka egiteko behar den denboraren arabera), eta, gainera, 3 aldiz aldatu ahal izango da erronka, eguneko erronka gustatzen ez bazaizu.

